

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

5053

EBAZPENA, 2023ko urriaren 25ekoa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-batzordeak eguneratzen dituena.

34/2012 Dekretuak, martxoaren 6koak, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuko sistema antolatzen duenak, osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamendua arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoan, osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen dituen eta osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemako zenbait alderdi garatzen dituen otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri.

Errege Dekretu horren 8. artikulua araber, irakaskuntza-batzordeei dagokie prestakuntza antolatzea, haren aplikazio praktikoa gainbegiratzea eta osasun-zientzietako espezialitateetako prestakuntza-programetan aurreikusitako helburuak betetzen direla kontrolatzea. Era berean, egoiliarren prestakuntza-jarduerak osasun-zentroaren ohiko laguntza-jarduerarekin eta jarduera asistentzialarekin integratzeko erraztasunak ematea dagokie, zentroan izango duten jarduera profesionala planifikatuz, bertako zuzendaritza-organoekin batera.

34/2012 Dekretuaren 6.3 artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-batzordeak osasun-prestakuntza espezializatuan eskumena duen zuzendaritzaren ebazpen bidez sortu, aldatu edo desegingo dira. Era berean, zuzendaritza horrek zehaztuko du zein irakaskuntza-unitate dauden batzorde horiei atxikita.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren 2019ko otsailaren 8ko Ebazpenak aitortu zuen, ordura arte, irakaskuntza-batzorde propioa zuten 16 irakaskuntza-zentro edo -unitate zeudela Euskal Autonomia Erkidegoan.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren 2022ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bidez Euskadiko Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitatearen Irakaskuntza Batzordearen atxikipen funtzionala aldatu zela jakinarazi zen, funtzionalki Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren mende egotetik sail bereko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren mendeko izatera pasatuta. Bestetik, Lege eta Auzitegi Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea sortu zen, eta Osasun Ministerioak behin-behineko akreditazioa eman zion.

Geroago, Osasun Ministerioko Lanbide Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko apirilaren 19ko ebazpenaren bidez, Arabako Unibertsitate Ospitaleko (AUO) Osasun Mentaleko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionala akreditatu zen, eta indarrik gabe utzi zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Osasun Mentaleko Erizaintzako Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza-batzordea akreditatu zuen aurreko ebazpena. Irakaskuntza-unitate multiprofesional berria sortzean, irakaskuntza-batzorde hori desagertu egin da, Arabako Unibertsitate Ospitaleko (AUO) Irakaskuntza Batzordean integratu baita.

Ondorioz, orain ebazpena eman behar da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Osasun Mentaleko Erizaintzako Irakaskuntza-unitateko Irakaskuntza-batzordea desegiteko.

Horregatik guztiagatik, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 10. artikulua araber, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako Osasun Mentaleko Erizaintzako Irakaskuntza Unitateko irakaskuntza-batzordea desegitea.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-batzordeen zerrenda eguneratzea. Zerrenda hori honekin batera doan eranskinean dago zehaztuta, eta bertan zehazten dira, gainera, batzorde horiei atxikitako irakaskuntza-unitateak eta mendekotasun funtzionala.

Hirugarrena.– Aitortutako irakaskuntza-batzordeen kopurua, osaera eta eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren xehetasunen arabera izan beharko dira.

Laugarrena.– Ezartzea bai onartutako irakaskuntza-batzordeen osaera eguneratua, bai eratzten diren batzorde berriena, bai irakaskuntza-zentroaren edo -unitatearen plan estrategikoa, bai eta irakaskuntza-kalitatea kudeatzeko plana ere, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 7.2 artikuluan aipatzen dena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratu beharko direla zentroari/irakaskuntza-unitateari dagokion atalean.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 25a.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria,
MIGUEL SÁNCHEZ FERNÁNDEZ.

2023ko azaroaren 9a, osteguna

ERANSKINA

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea	
Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Alergologiako IU	Alergologia
Analisi Klinikoetako IU	Analisi klinikoak
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia patologikoa
Anestesiologia eta Bizkorketako IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Kirurgia Orokor eta digestio-aparatuko IU	Kirurgia orokorra eta digestio-aparatukoa
Kirurgia ortopediko eta Traumatologiako IU	Kirurgia ortopedikoa eta Traumatologia
Dermatologia mediko kirurgiko eta Benereologiako IU	Dermatologia mediko kirurgikoa eta Benereologia
Endokrinologia eta Nutrizioko IU	Endokrinologia eta nutrizioa
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko farmazia
Hematologia eta Hemoterapiako IU	Hematologia eta Hemoterapia
Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
Medikuntza intentsiboko IU	Medikuntza intentsiboa
Barne Medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Medikuntza Nuklearreko IU	Medikuntza nuklearra
Mikrobiologia eta parasitologiako IU	Mikrobiologia eta parasitologia
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurofisiologia Klinikoko IU	Neurofisiologia klinikoa
Neurologiako IU	Neurologia
Obstetria eta Ginekologiako IU	Obstetria eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Urologiako IU	Urologia
Pediatriako IUM	Pediatriako Erizaintza
	Pediatria eta arlo espezifikoak
Osasun Mentaleko IUM	Osasun mentaleko erizaintza
	Psikologia klinikoa
	Psikiatria
	Haur eta nerabeen psikiatria

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea	
Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Alergologiako IU	Alergologia
Analisi Klinikoetako IU	Analisi klinikoak
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia patologikoa
Anestesiologia eta Bizkorketako IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Angiologia eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Kirurgia Orokor eta digestio-aparatuko IU	Kirurgia orokorra eta digestio-aparatua
Kirurgia ortopediko eta Traumatologiako IU	Kirurgia ortopedikoa eta Traumatologia
Kirurgia Plastiko Estetiko eta Konpontzaileko IU	Kirurgia plastiko estetikoa eta konpontzailea
Dermatologia mediko kirurgiko eta Benereologiako IU	Dermatologia mediko kirurgikoa eta Benereologia
Endokrinologia eta Nutrizioko IU	Endokrinologia eta nutrizioa
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko farmazia
Hematologia eta Hemoterapiako IU	Hematologia eta Hemoterapia
Immunologiako IU	Immunologia
Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa

2023ko azaroaren 9a, osteguna

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Medikuntza intentsiboko IU	Medikuntza intentsiboa
Barne Medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Mikrobiologia eta parasitologiako IU	Mikrobiologia eta parasitologia
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurokirurgiako IU	Neurokirurgia
Neurologiako IU	Neurologia
Obstetrizia eta Ginekologiako IU	Obstetrizia eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia erradioterapikoa
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Urologiako IU	Urologia
Pediatriako IUM	Pediatriako Erizaintza Pediatría eta arlo espezifikoak
Osasun Mentaleko IUM	Osasun Mentaleko Erizaintza
	Psikologia klinikoa
	Psikiatria
	Haur eta nerabeen psikiatria

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Analisi Klinikoetako IU	Analisi klinikoak
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia patologikoa
Anestesiologia eta Bizkortetako IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Angiologia eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Kirurgia Orokor eta digestio-aparatuko IU	Kirurgia orokorra eta digestio-aparatua
Ahoko eta aurpegi-masailletako kirurgiako IU	Ahoko eta aurpegi-masailletako kirurgia
Kirurgia ortopediko eta Traumatologiako IU	Kirurgia ortopedikoa eta Traumatologia
Kirurgia Plastiko Estetiko eta Konpontzaileko IU	Kirurgia plastiko estetikoa eta konpontzailea
Dermatologia mediko kirurgiko eta Benereologiako IU	Dermatologia mediko kirurgikoa eta Benereologia
Endokrinologia eta Nutrizioko IU	Endokrinologia eta nutrizioa
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko farmazia
Hematologia eta Hemoterapiako IU	Hematologia eta Hemoterapia
Inmunologiako IU	Inmunologia
Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
Medikuntza intentsiboko IU	Medikuntza intentsiboa
Barne Medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Medikuntza Nuklearreko IU	Medikuntza nuklearra
Mikrobiologia eta parasitologiako IU	Mikrobiologia eta parasitologia
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurofisiologia Klinikoko IU	Neurofisiologia klinikoa
Neurologiako IU	Neurologia
Obstetrizia eta Ginekologiako IU	Obstetrizia eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia erradioterapikoa
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa

2023ko azaroaren 9a, osteguna

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Urologiako IU	Urologia
Pediatriako IUM	Pediatriako Erizaintza Pediatria eta arlo espezifikoak
Osasun Mentaleko IUM	Osasun Mentaleko Erizaintza Psikologia klinikoa Psikiatria

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitateak
Alergologiako IU	Alergologia
Analisi Klinikoetako IU	Analisi klinikoak
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia patologikoa
Anestesiologia eta Bizkorketako IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Angiologia eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Kirurgia Orokor eta digestio-aparatuko IU	Kirurgia orokorra eta digestio-aparatukoa
Kirurgia ortopediko eta Traumatologiako IU	Kirurgia ortopedikoa eta Traumatologia
Dermatologia mediko kirurgiko eta Benereologiako IU	Dermatologia mediko kirurgikoa eta Benereologia
Endokrinologia eta Nutrizioko IU	Endokrinologia eta nutrizioa
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko farmazia
Hematologia eta Hemoterapiako IU	Hematologia eta Hemoterapia
Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
Barne Medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Mikrobiologia eta parasitologiako IU	Mikrobiologia eta parasitologia
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurokirurgiako IU	Neurokirurgia
Neurologiako IU	Neurologia
Obstetria eta Ginekologiako IU	Obstetria eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia erradioterapikoa
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Urologiako IU	Urologia
Pediatriako IUM	Pediatriako Erizaintza Pediatria eta arlo espezifikoak
Osasun Mentaleko IUM	Osasun Mentaleko Erizaintza Psikologia klinikoa Psikiatria Haur eta nerabeen psikiatria

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Analisi Klinikoetako IU	Analisi klinikoak
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia patologikoa
Anestesiologia eta Bizkorketako IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Angiologia eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Kirurgia Orokor eta digestio-aparatuko IU	Kirurgia orokorra eta digestio-aparatua

2023ko azaroaren 9a, osteguna

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU) eta irakaskuntza-unitate multiprofesionalak (IUM)	Espezialitatea
Kirurgia ortopediko eta Traumatologiako IU	Kirurgia ortopedikoa eta Traumatologia
Dermatologia mediko kirurgiko eta Benereologiako IU	Dermatologia mediko kirurgikoa eta Benereologia
Endokrinologia eta Nutrizioko IU	Endokrinologia eta nutrizioa
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko farmazia
Hematologia eta Hemoterapiako IU	Hematologia eta Hemoterapia
Medikuntza intentsiboko IU	Medikuntza intentsiboa
Barne Medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurologiako IU	Neurologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Urologiako IU	Urologia
Osasun Mentaleko IUM	Osasun Mentaleko Erizaintza
	Psikologia klinikoa
	Psikiatria

San Eloy Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitatea (IU)	Espezialitatea
Oftalmologiako IU	Oftalmologia

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Irakaskuntza Batzordea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitate multiprofesionala (IUM)	Espezialitatea
Osasun Mentaleko IUM	Osasun Mentaleko Erizaintza
	Psikologia klinikoa
	Psikiatria

Arabako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalako Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitate multiprofesionala (IUM)	Espezialitatea
Arabako Familia eta Komunitate Arretako IUM	Familia eta Komunitateko Erizaintza
	Familia eta Komunitateko Medikuntza

Bizkaiko Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalako Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitate multiprofesionala (IUM)	Espezialitatea
Bizkaiko Familia eta Komunitate Arretako IUM	Familia eta Komunitateko Erizaintza
	Familia eta Komunitateko Medikuntza

Gipuzkoako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalako Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza-unitate multiprofesionala (IUM)	Espezialitatea
Gipuzkoako Familia eta Komunitate Arretako IUM	Familia eta Komunitateko Erizaintza
	Familia eta Komunitateko Medikuntza

Euskadiko Lan Osasuneko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalako Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitate multiprofesionala (IUM)	Espezialitatea
Euskadiko Laneko Osasuneko IUM	Laneko Erizaintza
	Laneko medikuntza

2023ko azaroaren 9a, osteguna

Euskadiko Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitatea (IU)	Espezialitatea
Medikuntza prebentibo eta Osasun Publikoko IU	Medikuntza prebentiboa eta Osasun Publikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Obstetria eta Ginekologiako Erizaintzako Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitatea (IU)	Espezialitatea
Obstetria eta Ginekologiako Erizaintzako IU	Obstetria eta Ginekologiako Erizaintza

Matia Fundazioaren Geriatriko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionaleko Batzordea Matia Fundazioaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitate multiprofesionala (IUM)	Espezialitatea
Geriatriko IUM	Geriatriko Erizaintza

Onkologikoa Fundazioaren Irakaskuntza Batzordea Onkologikoa Fundazioaren mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Medikuntza Nuklearreko IU	Medikuntza nuklearra
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia erradioterapikoa

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Auzitegi eta Auzitegi Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Batzordea Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen mende dago funtzionalki	
Irakaskuntza-unitatea (IU)	Espezialitatea
Auzitegi eta Auzitegi Medikuntzako IU	Auzitegiko medikuntza